

Literaktum literatur gertakaria modu aktiboan, parte-hartzailean eta sortzailean jorratzeko Letren eta Lengoaien Festa gisa aurkezten da. Festa honek bestelako arte-moduekin ere lotzen du literatura, eta azken teknologiei, formatuei eta joerei irekirik dago.

Festa hau jarduera-mordo baten inguruan antolatu da. Jarduera hauek beraiek izango dira festa honen hurrengo edizioak osatuko dituztenak.

idazkeren mundua (Henning Mankell)

Literatur geografia guztietako idazleen eta gaien inguruko hitzaldiak.

hitz gurutzatuak (Luisa Castro ; Pablo Malo)

Sortzaileen arteko elkarrizketa-mahaia, idazle bat eta beste sorkuntza-esparruren bateko artista bat bilduko dituen aldi oro.

gela iluna (Stephen Watts)

Sorkuntza-tailerra, proiektu berriak ekoizteko gunea, artisten eta publikoaren arteko topaketari aukera ematen diona.

107.4 FM literatur frekuentzia

Casares Irratiak programazio propioa gauzatzen du, edizio bakoitzaren argudio-ardatzei egokitutakoa.

korronteak : poesia Urumea bazterrean Loiola Kultur Etxea

Hainbat olerkariren eskutik eginiko irakurketa honetan proiektu eta literatura-modu anitzek egiten dute bat.

- Egileen katalogo honek edizio honetan parte hartzen duten egileen aipamenak jasotzen ditu.



Luisa Castro

(Foz, Lugo, 1966 -)

Olerkaria eta nobelagilea. Compostelako Santiagon bizi izan da. Bertan, unibertsitate-ikasketak hasi zituen 1984. urtean, eta bere lehen olerki-liburua argitaratu zuen 18 urterekin. 1986. urtean Hispaniar Filologian lizentziatu zen Unibertsitate Complutensean, eta hainbat argitalpenetan kolaboratzen hasi zen. Ondoren, 1993. urtean, Arteetako Fullbright beka irabazi zuen eta New Yorkera aldatu zen Columbiako eta New Yorkeko unibertsitateetan zinemagintza ikastera. Haren ondotik, 1994. urtean, Bartzelonan bizitu zen, eta zinematografia-gidoiaren inguruko eskolak eman zituen.

1984. urtean bere lehen olerki-liburua argitaratu zuen, **Odisea definitiva: Libro póstumo**. 1986. urtean, Poesiako Hiperión saria lortu zuen urte hartan bertan argitaratutako **Los versos del eunuco** lanarekin. Ondorengo liburua 1988. urtean argitaratu zuen **Baleas e baleas** izan zen, galegoz idatzi zuen lehen obra. Urte hartan bertan **Los seres vivos** plaquettea argitaratu zuen. 1988. urtean Poesiako VI. Rey Juan Carlos saria irabazi zuen **Los hábitos del artillero** obrarekin.

1990. urtean sartu zen buru-belarri narratiban, eta bere lehen eleberria argitaratu zuen: **El somier**. Aipaturikoa VIII. Herralde eleberri-sarian finalista gelditu zen. 2001. urtean, berriz, Azorín eleberri-sariko irabazle izan zen **El secreto de la lejíja** lanarekin. Argitaratutako poesia guztia **Señales con una sola bandera** liburukian bildu zuen. Guztira, bost olerki-

liburu eta lau eleberri argitaratu ditu. Bere azken eleberria **Viajes con mi padre** (2003) da.

“*La Voz de Galicia*”, “*El Mundo*”, “*El País Semanal*” eta “*ABC*” argitalpenetako ohiko kolaboratzaile da. Bartzelonan, New Yorken, Madrilen eta Compostelako Santiagon bizi izan da, eta azken honetan bizi da gaur egun.

BIBLIOGRAFIA

- **Baleas e baleas**. Ferrol : Ediciones de la Sociedad de Cultura Valle-Inclán, 1986
- **Ballenas**. Madril : Hiperión, 1992
- **De mí haré una casa ecuestre**. Madril : Hiperión, 1997
- **Diario de los años apresurados**. Madril : Hiperión, 1998
- **La Fiebre amarilla**. Bartzelona : Anagrama, 1994
- **Los Hábitos del artillero**. Madril : Visor, 1988
- **Odisea definitiva: Libro póstumo**. Madril : Arnao, 1986
- **El Secreto de la lejíja**. Bartzelona : Planeta, 2001
- **Señales con una sola bandera : poesía reunida : 1984-1997**. Madril : Hiperión, 2004
- **El Somier**. Bartzelona : Anagrama, 1990
- **Los Versos del eunuco**. Madril : Hiperión, 1986
- **Viajes con mi padre**. Bartzelona : Planeta, 2003



Henning Mankell

(Stockholm, 1948 -)

Henning Mankell-ek hirurogeita hamarreko hamarkadan eman zion hasiera, dramaturgo gisa, bere literatur ibilbideari. Bere herrialdeko dramaturgorik garrantzitsuenetako bat da.

Hogei eleberri baino gehiago du argitaratuta, baita hainbat antzerki-lan eta gazteentzako ipuin ere. Dena den, mundu mailan idazle ospea eman diona Kurt Wallander inspektorea protagonista duen eleberri-seriea da. Aipaturikoa hogeita hamabost hizkuntzara itzuli da, eta izenburu horietako zenbait telesail bilakatu dira. Osasun-arazoak dituen pertsonaia hau larrituta dago aldaketa politiko eta sozialen eraginez, eta polizia gisa duen etorkizunari buruzko zalantzek itsuturik dute, nahiz eta miaketa kriminaletan aditua den beti ere. Inspektore honen bidez, mundu osoan gehien irakurritako polizia-eleberrien egileetako bat bilakatu da idazle hau.

Bere eleberrien artean honakoak nabarmentzen dira: **Asesinos sin rostro** (1991), Wallander-zikloari hasiera ematen diona, **La falsa pista** (1995), Britainia Handian argitaratutako eleberri beltzik onenaren Macallan Gold Dagger saria, edo **Pirámide** (2005) Wallander protagonista duen azken eleberria.

Bestalde, **Comedia infantil** (1997), aparteko afrikar ziklo bateko lehen eleberria da, haur baten ikuspegitik idatzia, gozotasun eta liluraz betetakoa, nahiz eta jorratzen dituen

gaiak gogorrak izan. Aipaturikoak bere obraren oso alderdi ezberdina erakusten du.

Haurrentzako narrazioen artean **El perro que corría hacia una estrella** (2000) edo **Las sombras crecen al atardecer** (2002) dira aipatzekoak.

Gaur egun Goteborgen, Suedian, eta eta Maputon, Mozambikenean, bizi da joan-etorrian. Azken honetan, Avenida de Maputo Antzoki Nazionala zuzentzen du.

BIBLIOGRAFIA

- **Asesinos sin rostro.** Bartzelona : Tusquets, 2001
- **Bidaia munduaren amaierara : Joelen kontakizunaren laugarren eta azken atala.** Donostia : Erein, 2005
- **Comedia infantil .** Bartzelona : Tusquets, 2002
- **Cortafuegos.** Bartzelona : Tusquets, 2004
- **La Falsa pista.** Bartzelona : Tusquets, 2001
- **El Hombre sonriente.** Bartzelona : Tusquets, 2003
- **Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean : Joeli buruzko bigarren kontakizuna.** Donostia : Erein, 2002
- **Izarretara bidean zihoan txakurra.** Donostia : Erein, 2001
- **La Leona blanca.** Bartzelona: Tusquets, 2003
- **El Niño que dormía con nieve en la cama.** Madril. Siruela, 2003
- **Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa : Joeli buruzko hirugarren kontakizuna.** Donostia : Erein, 2004
- **El Perro que corría hacia una estrella.** Madril : Siruela, 2000
- **Los Perros de Riga.** Barcelona : Tusquets, 2002
- **La Pirámide.** Barcelona : Tusquets, 2005
- **Pisando los talones.** Bartzelona : Tusquets, 2004
- **La Quinta mujer.** Bartzelona : Tusquets, 2000
- **Las sombras crecen al atardecer.** Madril : Siruela, 2002

- **Viaje al fin del mundo.** Madril : Siruela, 2004



Aurelia Arkotxa

(Baigorri 1953 -)

Aurelia Arkotxa Scarcia idazle euskalduna Baigorriin (Nafarroa Beherean) jaio zen 1953. urteko urriaren 3an. Txikitatik Hendaian bizi izan da, eta 1994. urtetik aurrera Kanadan bizi izan da aldika. Hispaniar Filologian lizentziatua eta Euskal Filologian doktore da. 1990. urtean bere doktoretesia aurkeztu zuen Bordeleko Unibertsitatean; Gabriel Aresti olerkariari buruz egin den lehena. Zehazki esateko, **Maldan behera** olerki-liburua aztertu zuen. Euskal literaturako irakaslea da Bordeleko Unibertsitatean eta Baionako Fakultatean. Iparraldeko idazleak bildu zituen Maiatz literatur aldizkaria sortu zuenetako bat izan zen. Kennet White-k zuzendutako "Institut International de Géopoétique"eko kide ere izana da. 2003ko urtarrilaren 31an Euskaltzain izendatu zuten.

Bere liburuei dagokienez, honakoak dira bere izenbururik adierazgarrienak: Gabriel Arestiren **Imaginaire et poésie dans Maldan behera** (Julio de Urquijo Euskal Filologiako Mintegiko Urtekaria, 1993), **Pensées, études et voyages de 1835** (Antoine d'Abbadie kultur mezenasari buruzkoa, Patri Urkizurekin elkarlanean idatzitakoa) eta **Atari ahantziak** izenburua duen olerki-liburua. Aipaturikoa itsasoaren, oroimenaren eta nostalgiaren inguruko zati

banatan dago banatuta, eta Grezia Klasikoari eta Antzinako Egiptoko mitologiari buruzko erreferentziak ditu.

2000. urtean Arkotxak **Marko Poloren ametsa** ipuina argitaratu zuen Txalaparta argitaletxearen **Gutziak** bilduman. Berriagoak diren lanen artean honakoak dira aipatzekoak: **Iker 14** (2003-literatura) eta **Septentrio** (2001) liburuak, prentsan argitaratutako artikulu-mordoa eta liburu kolektiboetan (**Mujeres poetas en el País Vasco**, **A Ponte das palabras : poesia vasca 1990-2000**) eginiko parte-hartzeak.

BIBLIOGRAFIA

- **Antoine d'Abbadie, Pensées, études et voyages de 1835.** Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1997
- **Atari ahantziak.** Iruñea : Pamiela, 1993
- **Euskal kritika gaur.** Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002
- **Euskaldunen Labrador.** -Gasteiz : Eusko Jaurlaritza, 1990
- **Gutziak.** Tafalla : Txalaparta, 2000
- **Iker 14 (Literatura).** Baiona : Iker, 2003
- **Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti.** Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa, 1993
- **Joan Mirande Orhoituz, 1972-1997: antologia.** Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, 2002
- **Once (poetas) para trescientos (lectores): Mujeres poetas en el País Vasco.** Madril : La Palma, 2001
- **A Ponte das palabras : poesia vasca 1990-2000 = Hitzeko zubia : euskal poesia 1990-2000.** Compostelako Santiago : Amaía, 2000
- **Septentrio : narrazioa.** Irun : Alberdania, 2001



Stephen Watts

(Londres, 1952 -)

Stephen Watts Londresen jaio zen 1952. urtean, eta kultur harreman garrantzitsua du bere amaren familiaren jatorri den italiar Alpeekin.

Olerkaria da, baita **The Lava's Curl** (1990), **Gramsci and Caruso** (2003) eta **The Blue Bag: selected poems** (2004) olerki-liburuen researcherautor-a ere.

Houses and Fish (1992), **Voices of Conscience** (1995), **Mother Tongues** (2001) eta **Music While Drowning** (2003) antologiaren koeditore izan da.

Bere obra hizkuntza ugariara itzuli izan da, hala nola txekierara, persierara, gaztelaniara, italiarara, eslovenierara edo finlandierara.

Mendien eta emigrazioaren inguruko kulturari buruzko testu eta olerki-bideo ugari idatzi izan du. Hainbat errezitaldi ere eman izan du Londresen, eta Pragako, Moraviako, Lituaniako, Finlandiako eta Espainiako hainbat Jaialditan ere hartu izan du parte.

Ikusmenaren arloa jorratzen duten hainbat artistaren ohiko kolaboratzaile da, eta Londresko Multicultural Arts Consortium delakoa sortu zutenetako bat da. Bertan olerki-jaialdi eleanitzak antolatu ohi ditu.

Gaur egun, Erresuma Baturako italiar immigrazioari buruzko poema-bideo bat lantzen dihardu, baita itzulpen ingeleseko XX. mendeko poesiari buruzko biografia bat ere. Aurki argitaratzekoa da azken hau.

BIBLIOGRAFIA

- **The Blue Bag: selected poems.** London : Aark Arts, 2004
- **Gramsci and Caruso Poems 1976-1997** . Bellew. 2003
- **Houses and Fish**, 1992
- **The Lava's Curl.** Grimaldi Press, 1990
- **Mother Tongues.** London : King's College, 2001
- **Music While Drowning.** London : Tate Publishing, 2003
- **Voices of Conscience.** Newcastle : Iron Press, 1995



Teresa Shaw

(Montevideo, Uruguai 1951 -)

Teresa Shaw Urioste Montevideon jaio zen, Uruguain, 1951. urtean. Bertan, literatur ikasketak egin zituen Errepublikako Unibertsitatean. 1976. urteaz geroztik Bartzelonan bizi da, eta bertako Unibertsitatean lizentziatu zen Hispaniar Filologian. Irakasle-lanetan jarduten du.

Honako liburuak argitaratu ditu: **Destiempo** (2003); **Evocación de la luz** (1999) plaquetteak eta **Instantáneas** (1999). Baita olerkiak ere hainbat aldizkaritan, adibidez, *Hora de poesía*, *El signo del gorrión* eta *Versalia* aldizkaritan, besteren artean.

Frieda Hughes-en **Woroolo** (Plaza y Janés, Bartzelona, 2002) liburua itzuli du gaztelariara.

Bartzelonako *Poesía 080* aldizkariko erredakzioko kide da.

Hainbat errezitaldi eta olerki-ziklotan hartu izan du parte. Bere obra *Ficciones* (Granada, 2002) aldizkariko antologian eta **Las poetas de la búsqueda** (Zaragoza, 2002) eta **The Other Poetry of Barcelona : Spanish and Spanish**

American Women Poets, (Oakland, Kalifornia 2004) hispaniar antologietan jaso izan da.

BIBLIOGRAFIA

- **Destiempo**. Lleida : March, 2003
- **Evocación de la luz**. Bauma Cuadernos de poesía, 1994
- **Instantáneas**. Café Central, 1999
- **The Other poetry of Barcelona : Spanish and Spanish-American Women Poets**. Oakland (Kalifornia) : Corner, 2004
- **Las Poetas de la búsqueda**. Zaragoza : Libros del Innombrable, 2002